XXXVII

OSTADAR

S.K.T.

# 19/20 DENBORALDIA

Ezin dugu urte amaierako aldizkaria hasi COVID-19 birusari aipu egin gabe, begi kolpe batean, gure bizitzei inoiz espero ez genuen astindua eman diona. Klub honetatik pandemia honen eragin gogorrenak jasan dituzten pertsona guztiak, Lasarte-Oriatarrak bereziki, oroitu nahi ditugu. Bere ondorioak osasun alorretik haratago doaz, bai arlo sozialean, bai ekonomikoan, baita kirolean ere, dagoeneko ondorio latzak jasaten ari gara. Pandemiak irauten duen bitartean, eta badirudi luze doala, klub honek lana egiteko modua aldatu beharko du.

Ostadarrek Lasarte-Oriako herritarren babesa eta tokiko merkataritza ditu oinarri. Elkar laguntzen diogu. Elkarteak, astero, 800 herritar baino gehiagori kirola egiteko aukera eskaintzen dio eta gure jardueraren bitartez herriko merkataritza sustatzen saiatzen gara. Hortaz, egoera honen ondorioz, ERTE edo langabezian geratu diren klubeko familiei gure animoak helarazi nahi dizkiegu, baita herriko merkataritza eta ostalaritzari, denon babesa eta laguntza beharko baitute. Elkarte baikorra gara, bestetan bezala, honi ere aurre egingo diogu, dudikbe!

Kirol arloari dagokionez, hasiera gazi-gozoa izan genuen. Batetik, hogeita lau urtez gure kirol egituraren parte izandako teniseko atala desagertu delako. Iñaki, mila esker, bihotzez, gure herrian kirol honen alde egindako lanagatik eta zuk esaten duzun bezala gure ume eta gazteei, “tenisaren sekretuak” erakusteagatik. Bestetik, bi atal berri ditugu, boleibola eta atletismoa. Kluba bizirik dagoenaren seinale. Boleiboleko nesken taldeak haize freskoarekin etortzeaz gain, herriko emakumeen kirolari bultzada eman dio. Atletismoko atala, berriz, bere koordinazioan eskarmentu handiko jendearekin dator, kirola zentzu guztietan ezagutzen duena, elitekoa zein eskola kirolakoa. Guztioi ongi etorri! Gainerako kirol jarduerak aurrera doaz, aldizkarian irakur dezakezuen bezala. Ostadarrek kirola sustatzen jarraitzen du, aisiakoa zein federatua, gizonezkoentzat zein emakumezkoentzat.

Amaitzeko, Klub honen jardueraren parte zareten guraso, kirolari eta babesle guztiei eskarrak eman nahi dizkizuegu guregan jarritako konfiantzarengatik. Aurten ezin izango diogu denboraldiari merezi duen agurrik eman. Beste batean izan beharko da.



No podemos comenzar esta revista sin hacer referencia al COVID-19. En un abrir y cerrar de ojos, se ha convertido en un elemento que nos ha hecho tambalear. Desde el Club nos queremos acordar de tod@s l@s lasarte-oriatarras que han sufrido los efectos más duros de esta pandemia. Sus efectos van más allá del ámbito sanitario, tanto en el contexto socio-económico como en el deportivo las consecuencias van a ser muy importantes, en realidad ya las estamos viendo. Este Club se tendrá que reinventar, tanto deportiva como económicamente mientras dure esta pandemia, que tiene pinta de ir para largo.

Ostadar pone sus pilares en el apoyo de la ciudadanía de Lasarte-Oria, y en el apoyo del y al comercio local. Es una ayuda mutua, más de 800 lasarte-oriatarras semanalmente hace deporte a través de nuestro club, y mediante nuestra actividad deportiva intentamos fomentar el comercio y hostelería local. Por todo ello, vaya desde aquí nuestro apoyo a todas las familias de nuestro txoko cuya actividad laboral se ha visto alterada en forma de ERTE o de paro, y a todo el comercio local que va a necesitar de nuestra ayuda para poder volver a su sitio habitual. Somos un Club optimista y le daremos la vuelta SIN DUDA.

En el ámbito deportivo, comenzamos el año con la desaparición de la sección de tenis, un trago duro para el Club ya que durante 24 años ha formado parte de nuestra estructura deportiva. Desde aquí agradecer a Iñaki Altuna su labor en pro de este deporte en nuestra localidad. Somos un club vivo, unos nos dejan y otros llegan, y este año tenemos el placer de contar con dos secciones nuevas: voleibol y atletismo. El voleibol en categoría femenina, con savia nueva, con gente joven que tiene ganas de organizar y hacer deporte, un nuevo impulso al deporte femenino en nuestra localidad. El atletismo con personas experimentadas en su coordinación, personas conocedoras del deporte en toda su extensión, tanto en el deporte de élite como en el escolar, a tod@s ell@s ongi etorri. El resto de actividades deportivas siguen adelante, Ostadar no para de impulsar el deporte tanto de ocio como federado, tanto para mujeres/chicas como para hombres/chicos.

Para finalizar queremos poner en valor al conjunto de padres/madres, jugador@s y sponsors que forman parte de la actividad de este Club. Este año no podremos celebrar como se merece este fin de año deportivo, otra vez será. Muchas gracias a tod@s.

# AUZOLAN SARIA

## IÑAKI ALTUNA

La mende laurdena erraketazoak ematen, hogeita lau urtez Mitxelingo teniseko pistetan herriko ume, gazte eta helduei "tenisaren sekretuak" irakasten ilusioz eta seriotasunez. Sari honen bitartez urte guzti hauetan tenisa sustatzeko herrian egin duzun lana eskertu nahi dizugu. Asko dira Ostadar Tenis Eskolatik pasa direnak, denon partez mila esker denangatik eta zorionak **IÑAKI.**











# KIROLARI ONENA

## LORENA ZABALA

Teníamos varios nombres sobre la mesa para este premio, pero esta vez, queremos poner en valor el trabajo, la constancia, la veteranía y el deporte minoritario, por eso hemos decidido otorgar el premio a la mejor deportista a **LORENA ZABALA**. Su andadura en el hockey hielo comenzó en el Txuri Urdin y de ahí al Sumendi de Vitoria, donde vive actualmente. Lleva practicando este deporte en la máxima categoría diez temporadas y ha participado en dos Campeonatos del Mundo de hockey hielo femenino. Zorionak Lorena, personas como tú sois un referente para el resto de deportistas.



# ARRANQUE ILUSIONANTE EN EL CLUB OSTADAR

**La sección de atletismo se ha incorporado como oferta deportiva al club al inicio de la actual temporada. Amaia Andrés -atleta ex profesional, olímpica en el 92, entrenadora nacional y presidenta de la FGA - entrena a los escolares y Oscar Goikoetxea -monitor nacional- dirige a l@s atletas federados. Dos personas con un bagaje importante a sus espaldas. No obstante, esta sección lleva trabajando en el municipio más de veinte años, impartiendo atletismo en las instalaciones de Michelin.**

El objetivo de nuestro trabajo ha sido siempre formar a nuestros atletas más allá del aspecto deportivo, inculcándoles valores como la igualdad de género, el respeto, esfuerzo, compañerismo… En definitiva, formando a nuestr@s atletas de una manera global", indica Amaia. Por ello, puntualmente, los atletas más veteranos realizan una labor de apoyo con las categorías menores.

La sección de atletismo tiene tres líneas de trabajo según la edad y objetivos de l@s atletas: escolares, federados y actividad lúdica no competitiva.



Aunque los resultados no lo son todo, este año ha sido especialmente bueno, teniendo en cuenta que sólo han podido celebrar una parte de la temporada. Por ello, tanto Amaia como Oscar quieren destacar los siguientes resultados: cuatro medallas en el absoluto y tres en categoría de menores en los Campeonatos de Euskadi; tres medallas en el absoluto y diez en categoría de menores en los Ctos. de Gipuzkoa y resaltar el resultado de Naroa Furundarena, 7ª en triple salto en el Ctos. de España Absoluto (Ourense), aun no siendo su categoría. Esto lo recordaremos ya que pudimos ver a Naroa en directo en el canal Teledeporte.





**Otras actividades**

Con el objetivo de llevar a cabo un intercambio de conocimientos para mejorar los entrenamientos, Amaia ha dirigido varias sesiones sobre las técnicas hipopresivas. Estas sesiones han sido impartidas a los monitores y entrenadores de las secciones del Ostadar.



Además, desde la sección de atletismo, también preparan y asesoran a personas, aunque no pertenezcan al club, para carreras populares, pruebas físicas de oposiciones, mejora de la condición física, etc.

Oscar y Amaia quieren recordar que estarán a pie de pista cuando la situación nos lo permita.











# KIROLAZ HARATAGO






Edonork esangoluke **Munduko txapelketan** parte hartzea, **Espainiako selekzioarekin konbokaturik** joatea edo **Espainiako gutxieneko marka lortzea** kirol lorpen izugarriak direla. Kirol egokituan lortuaz gero aldiz, oharkabean igarotzen dira. Hau dena eta gehiago lortu dute Ostadar Inklusioko kirolariek 2019/2020 denboraldian, oraindik munduari gu ere kirolariak garela ulertzea kostatzen zaion arren.

Aún así, Ostadar Inklusioa es mucho más que logros deportivos, y hay cosas más importantes más allá de ellos. Hay logros que no se ven en los medios y que se refieren al día a día, logros que hacen más por las personas. **Compañerismo, trabajo** en equipo**, buen humor, igualdad de oportunidades, apoyo,** transmisión de **valores** mediante el deporte, **socialización, disfrutar** de la vida y del entorno, de la familia. La familia, la que nos vio nacer, pero también la que nos ve crecer. Porque sin querer eso es en lo que se convierte un club, en esa familia a la que ves crecer y que hace que crezcas. Una familia con distintas maneras de ver la vida y distintas formas de vivirla. Por todo ello, este año hemos recibido el **CASCABEL DE ORO** que otorga la ONCE a las asociaciones, entidades o empresas en reconocimiento a su labor a favor de la inclusión. Reconocimiento que nos hace mucha ilusión y que hace que nuestra labor sea más visible.



Ondoko argazkian ikusten da denboraldia hasi genuen modua, familian, kirola eginez, gozatuz eta aurpegian irriparra marrazturik. Kirol lorpenez haratago, urte guztiak horrela hasi eta bukatuko ditugulakoan.

Gora kirola eta familia!

Gora Ostadar Inklusioa!










Gu ere Bularreko Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Egunean arroxez jantzi ginan



Denak adi! Aupa Endika!!!

# SASKIBALOI ATALA, BEDERATZI TALDE, ESKOLA BAT, HAMAIKA ILUSIO

Aurtengo denboraldi amaiera orain arte izan dugun arraroena izan da, baina pena handiz esan behar dugu, bai, denboraldia amaitu da. Ezjakintasun egoera honek kezkatzen gaitu, ez baitakigu noiz izango dugun, berriro ere, baloi hori saskiratzeko aukera. Ez dakigu noiz, ez nola bueltatu ahal izango garen entrenatzera. Beharbada hauek dira idazten ditugun hitz zailenak, gure jokalari, entrenatzaile, guraso eta belaunaldi honetako biztanle guztientzat.

Baina baikorrak gara eta uste dugu, konturatu baino lehenago zelai batean egongo garela gure kideekin, emozioz beteriko partidu bat jolasten eta harmailak gure lagunekin eta senideekin beteta, gure taldeak animatzen. Animo, iritsiko da eguna!

Kirol arloari dagokionez, gogoratu zortzi urte bete dituela atal honek; gure proiektu txiki hori, jakin dugun hoberen elikatu eta zaindu ondoren, hazi egin da. Gaur egun, nesken zortzi talde, mutilena bat eta Saskibaloi Eskola bat ditugu. Talde guztiak oso garrantzitsuak dira eta ez diogu inori protagonismorik kendu nahi, baina, Errendimenduko Mini taldea goraipatu nahi dugu, zirraragarria eta intentsitatez beteta txiki hauen lana. Infantil Haundi taldea ere ezin ahaztu, kirol honek elkartasuna eta talde harremanak sendotzen ditu eta hori lortu du taldeak. Talde hau oso batuta egon da eta erreferentzia garrantzitsua izan da beste talde guztientzat. 2014 eta 2015 denboraldian, gure Errendimenduko Junior taldeak Euskal Ligara salto egin zuen, hori izan zen klubean izan dugun arrakasta haundiena. Denboraldi honetan, gure Errendimenduko Kadete taldeak esperientzia berdina bizitzea lortu du; ahaztuko ez duten esperientzia ikaragarria. Gure goi mailako taldearei dagokionez, 1º Probintzialeko Senior Neskak goiko postuetan jarraitzen du. Azken denboraldietan 3.nak geratu dira, aurten, ordea ez dakigu nola bukatuko den. Talde guztiek beraien helburuak bete dituzte: gaitasun fisikoak indartzea ez ezik, ausardia, konpromezua eta diziplina ere garatu dituzte.

Etorkizunari begira, kirol proiektu honek aurrera jarrai dezan espero dugu eta kirol honi ahalik eta etekin handiena ateratzea herriko gazteekin. Jokalariei orain arte bezala lanean jarraitzeko esango genieke, eta jende guztiari eskerrak eman, batez ere entrenatzaileei proiektu honetan sinesteagatik eta parte hartzeagatik.



Kirol talde bat baino gehiago. Biba zuek!!!




Mila esker Jon!!

# BOLEIBOLA
# BERRIZ ERE OSTADARREKO ATALEN ARTEAN



Denboraldi honen laburpenarekin hasteko, Ostadar SKT osatzen duten pertsona guztiei egindako harreragatik eskerrak eman nahi dizkiegu, bide guzti hau errazagoa egiteagatik. Duela urte batzuk hasi zenaren errautsak berriz piztu dira eta, aurten, senior mailako hamabi neska elkartu gara Gipuzkoako txapelketa jokatzeko; irailetik hona, Asier Acuriolaren eskutik, teknikoki hobetzeko eta kirola probatzeko aukera paregabea izan dugu.

Taldearen aniztasuna dela-eta, jokalariak puntu ezberdinetan geunden, beraz, hasieran horri aurre egitea gure lehentasuna izan zen. Behin txapelketan murgilduta, geroz eta talde homogeneoagoa bihurtu da eta jokalariak elkar babestu gara. Eguneroko pauso txiki horiek emaitzak eman dituzte.

Talde baten osagai garrantzitsuenak ere aurkitu ditugu: adiskidetasuna eta motibazioa. Lehenengo momentutik, jokalariok taldean sinistu dugu, bakoitzak dituen gaitasunetan zein taldearen osotasunaren gaitasunetan ere. Honela, txapelketan zehar topatu ditugun erronkei aurre egiteko tresnak lortu ditugu.

Datorren urtera begira jartzen gara… Eta, boleibolean hasi edo sakondu nahi duenarentzat, ateak zabalik daude. Etorri eta probatu!!





# BASTOIAK ESKUAN ETA IBILI… LASARTE-ORIAN

**Kilometro bat oinez, ibiltzen, ibiltzen, kilometro bat oinez bastoiak urratzen. Kilometro gutxi batzuk egiten dituzte ipar mar txalariek urtean zehar, ikastaroak direla, irteerak direla, entrenamenduak direla. Rosa, Junkal eta Alex jarraitzen dute Ostadarreko Ipar Martxa taldeko gidaritzan.**

Ipar martxa taldeko kideek astean bitan entrenatu, hilean behin Euskal Herriko txoko batera irteera bat egiten dute eta hilean behin ere Club Vasco de Campineko ipar martxa taldearekin ibilaldi bat egiten dute. Horretaz gain, ekimen desberdinetan parte hartzen dute, hala nola, Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoian, San Silvestre Krosean, Aspanogiko martxa solidarioan, Euskararen Maratoian, Korrikan, sentsibilizazio kanpainatan, Gure Eskuko ekimenetan, etab. Aurten, ezingo dituzte nahi adina kilometro egin, kirol jarduera eten behar izan dugu eta.



Ostadar eta Gironako martxalariak Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia hasi aurretik



Aspanogiko Martxa Solidarioan. Aurrera piratak!!!

**Esperientziak trukatzen**

Ostadarreko martxalariak kirola medio, beste herritako martxalariak ezagutu, beraiekin esperientziak partekatu eta txoko berriak ezagutu dituzte. Iaz, gure taldea Otsagabiara joan zen asteburu pasa erraketekin ipar martxa egitera, bide batez bertakoekin inguruko txokoak ezagutu zituzten –Agobi, Gartxoten ibilbidea, Muskilda…-, baita gastronomia ere. Irteera honek bere buelta izan zuen, noski. Otsagabiako taldetxoa gure herrira etorri zen kirolan bitartez Donostialdeako ibilbide eta txokoak ezagutzera. Bizitako esperientziak merezi zuela eta aurten errepikatzea pentsatu zuten. Itxialdia hasi zen asteburuan Otsagabiara joateko aurreikusita zuten, baina bertan behera geratu zen.



Rosa eta Junkal Añanako gatzagatan, Valderejo Parke Naturalera eta Añanara egindako irteeran.

Gironako ipar martxa taldearekin ere feeling-a sortu zen. Iazko Pazko astean ipar martxa taldeko kideak Gironara joan ziren, ibilbide desberdinak burutzeaz gain, turismo pixkat egiteko eta bertako martxalariak ezagutzeko aukera ere izan zuten. Gironako ipar martxa taldea urrian etorri zen Lasarte-Oria Bai! I.Ipar Martxa edizioan parte hartzeko. Hauek ere bueltatuko direla zin egin dute.



Eva Espuelasekin pilatwalk ikastaroan.

Rosa, Junkal eta Alexek ipar martxalari guztiak animatzen dituzte bastoiekin ibiltzera. Izan ere, denbora luzean ezin izango dugu taldeko jarduerarik antolatu. Beraz, bastoiak eskuan eta ibili herrian.



**Mendi saileko kideek euren jarduera eten behar izan duten arren, gainontzekoek bezala, laster mendian gora eta mendian behera aritzeko aukera izango dute. Pazientzia.**

Azken urte honetan taldeko kideek ez diete hutsik egin urteroko hiru ekimenei. Batetik, martxa luzea, iaz Tolosa Lasarte-Oria egin zuten ia 9 orduko ibilbidea burutuz. Bestetik, Buruntzaldeako Ibilbideen Egunean udalarekin elkar lanean ibilbide gidatua egin zuten. Azkenik, urtea agurtzeko, abenduak 31eko Buruntzako San Roke ermitan erromeria antolatu zuten Ttakun eta Arriskailetako lagunekin batera.

Otsailean berri ona jaso genuen Patagoniatik, Juan Mari Iraola mendi ataleko kideak munduko mendi eder, zaila eta erakargarrienetako batera igotzea lortu zuela, Cerro Torre, goi mailako alpinisten helburu eta ametsa. Urte hasieran Sebastián Alvarok, 'Al filo de lo imposible' –ko sortzailea eta zuzendariak, gidatutako espedizioan parte hartu du Juan Marik Alberto Iñurrategi, Martin Pala eta Luis Miguel Soriano kamara eta alpinistarekin batera.

Cerro Torre mendiak 3.128 m ditu. Horrela esanda ez dirudi gauza handirik alpinismoa praktikatzen ez dugunontzat, sonatuagoak baitira altuera handiko igoerak, 6000 edo 8000koak. Patagoniako Glaziarren Parke Nazionaleko mendien garailera 2000 edo 3000 metro ingurukoa da, baina klimatologia oso gogorra da, haize bolada bortitzak izaten dira. Mendi hauen zailtasunak eta edertasunak egiten ditu erakargarriak eskalatzaileentzat. Juan Mariri galdera sorta bat bidali diogu bidaiari buruz zerbait gehiago jakin aldera.

***Espedizioren helburua Cerro Torre igotzea bazen ere, Fitz Roy edo beste gailurrik igotzeko aukerarik izan al zenuten?***
Bai, Cerro Torre igo eta aste pare batera eguraldi oneko hiru egun izan genituen eta horiek aprobetxatuz Poincenot orratza eskalatzeko aukera izan genuen.

***Sebastian Alvaro espedizioaren arduradun, kamera ere igo zen… saio edo dokumental bereziren bat prestatzen ari al da? Zerbait aurreratzerik?***
Ba egia esan ez dakit noizko eta nola egingo duen. Hasiera batean hiru urteko proiektu batean murgilduta dabil eta tartean dokumental hau. Ez dakit noizko egin ahal izango duen baina zerbait egingo duela bai.

***Ez da lehen aldia Patagoniara zoazela, ezta Cerro Torre igotzen saitzen zarela.***
Bai, askotan izan naiz eta Cerro Torren saiakerak ere horrela izan dira, batzuetan gailurretik oso gertu geratuz eta beste batzuetan 50 metro bakarrik eginez; hala ere, beste orratz batzuk eskalatzeko parada ere izan det: Saint Exúpery orratza edo Mermoz orratza.

***Zergatik da hain berezia eta erakargarria Cerro Torre?***
Cerro Torren argazkiak ikusi besterik ez dago zergatik den berezia jakiteko baino ez da Cerro Torre bakarrik Fitz Roy, Egger, Standhart, Poincenot…inguru guzti horrek egiten du berezia Patagonia.

***El Chalten esaten badizut zer datorkizu burura?***
Momentu onak, txarrak, nekeak, pozak, lagunak eta berriz bueltatzeko gogoa.

***Hurrengo erronka, proiektua?***
Itxialdi honetatik lehenbailehen irten eta hemen inguruan al den guztia eskalatzea.



Juan Mari Cerro Torreko azken luzeak egiten

# ¿TEMPORADA EN BLANCO? ¡¡TEMPORADA BELTZAK!!

**Este caótico fin de temporada que han sufrido todos los deportes tanto individuales como de equipo, han dejado un poco en el aire los resultados de los distintos grupos. Desde Beltzak-Ostadar Rugby Eskola simplemente queremos reafirmarnos que esta temporada ha sido una gran temporada Beltzak, tanto en resultados de algunos equipos, como de participación y trabajo de grupo en el factor más importante del club: La Eskola de Rugby.**



Con satisfacción podemos comprobar el aumento en la cantidad de chicos y chicas que se acercan a probar el rugby a nuestra eskola, así como el nivel de los que año tras año van disfrutando con el juego en las distintas concentraciones, ellos mismos se sorprenden cuando ven que el trabajo y la constancia dan resultados. Uno que le costaba realizar el placaje al rival un día descubre su propia técnica y es felicitado por sus compañeros y entrenadores; otro se da cuenta de que aprende a driblar y es capaz de hacerlo fácil; otro... simplemente se divierte jugando o recogiendo margaritas en el campo de hierba natural, o haciendo montones de caucho en el césped de Michelin; otro se embarra hasta las cejas cuando la lluvia cae sin compasión y aprenden a disfrutar con el mismo barro.



Pero, jornada tras jornada, están con sus compañeros, aportando su juego, su sonrisa, o disfrutando del genial y reconfortante tercer tiempo. Todos deseando volver al césped, al barro; a perseguir y pasar el indeciso balón ovalado; y a divertirse con el rugby.

El equipo Senior que juega en la 2ª División de la Euskal Liga ha conseguido meterse en el grupo cabecero y jugar el play of de ascenso a primera división. Estos también disfrutan en todo momento, con sus veintitantos años (algunos muchos más), son capaces de transmitir la misma ilusión que tienen los Sub 10, cuando están en el campo, incluso diría que alguno de ellos se enfada como si tuviera 8 o 9 años, cuando no le sale alguna jugada; y como los más txikis, también están deseando volver a pisar nuestro césped de Michelin, donde el ambiente, la motivación, y su tercer tiempo hace que el día de partido, sea un día especial de principio a fin, sin importar el resultado.

Que nadie dude, que después del confinamiento, en cuanto se autorice, los Beltzak estarán esperando a todos: a los txikis de la Eskola, a las promesas de las categorías Sub14, Sub 16, y Sub 18, así como a los Seniors que hagan rodar balones ovalados sobre el césped de Michelin.

Por todo, esta ha sido una temporada Beltzak. !!!Beltzak Gagne¡¡



# FUTBOL ESKOLA OSTAAAAAADAAAAR!!!!









FUTBOLA

# AUPA NESKA-MUTILAK!!!!

Denboraldi politta egiten ari ginen alarma egoeran sartu ginean, talde guztiak kanporaketako postuetatik at zeuden eta beste batzuk igoerako ateetan. Azken aste honetan jakin dugu denboraldia amaitutzat eman dutela, infantilek ohorezko maila mantentzen dutela eta 1go jubenilak Ohorezko Jubenil mailara igotzen direla. Zorionak!

Futboleko atala elkarteko atalik sendoena da, mutilen 12 taldek eta emakumezkoen 2 taldek osatzen dute, Futbol Eskolarekin batera; guztira, 350 kirolari eta hauek laguntzen 58 herritarrez osatutako lan taldea (koordinatzailea, entrenatzaileak, laguntzaileak, zuzendaritza, fisioa eta errekuperatzailea). Mila esker eta zorionak denboraldi honetan egindako lanarengatik.



*Kadeteak*

La temporada estaba resultando importante cuando nos metimos de lleno en la situación de alarma, todos nuestros equipos estaban libres del descenso y algunos a puertas del ascenso. Esta última semana hemos sabido que han dado la temporada por finalizada, que nuestro infantil mantendrá la categoría de honor y que el 1ª Juvenil asciende a Juvenil de Honor. Zorionak!

La sección ha estado formada por 12 equipos masculinos, 2 equipos femeninos junto con la escuela de fútbol; un total de 350 deportistas y un grupo de trabajo de 58 personas (coordinador, entrenadores, ayudantes, directivos, fisio y recuperadora). Muchas gracias y felicidades a tod@s, por el trabajo realizado esta temporada.



*Erregionaleko Ohorezko Dibisioa*



*Alebina*



*Alebina*



*Lehenengo Kadetea*



*Lehenengo Kadetea*



*Lehenengo Infantila*



*Lehenengo Infantila*



*Ohorezko Kadetea*



*Lehenengo Jubenila*



*Infantil Txikia*



*Ohorezko Infantila*



*Lehenengo Jubenila*



*Preferentea*

## ZIKLOTURISMOA



Ostadarreko **ZIKLOTURISTEK** martxoan ekin diote 2020 denboraldiari Itsasondoko irteerarekin eta urriaren 28an amaituko dute Getariko San Prudentzion. Tartean Altzora, Mendarora, Otzaurtera, Leitzara... Guztira 2462 km egin beharko lituzkete, baina, alarma egoerak ez die utziko. Taldea Gipuzkoako errepideetara noiz bueltatu zain dago. Animo ekipo!

## BOLOS Y TOCA

Los representantes de la sección recorren los diferentes pueblos de la provincia llevando nuestro nombre en las diferentes tiradas, ilusión no falta.En el ámbito local suelen organizar las tiradas de las fiestas de San Pedro y en los dos últimos años el Memorial Joxe Zapirain. Pero este año, nos parece que se ha terminado la temporada. De todas maneras, cuando podamos volver abrir el bolatoki, os animamos a que os acerquéis y probéis este deporte. Seguro que disfrutareis.



## PORRA

Dakizuenez, coronavirusa dala eta, txirrindularitzako lasterketa batzuk bertan behera geratu dira eta beste batzuk data berrien zain. Adi egon, datak jakin ahala gure **PORRA** martxan jarriko dugu eta. Beti bezala, informazio guztia gure web gunean eta sare sozialetan aurkituko duzue.



## BAZKIDEAK



Gure bazkideen babesa ezinbestekoa da Ostadar SKT-ko kirol egitasmoa gauzatu ahal izateko. Horregatik, gurekin zaudetenoi eskerrak bihotzez zuen laguntza ematen jarraitzeagatik. Eta oraindik bazkide ez zaretenoi, kirol proiektu honen parte izatera gonbidatzen zaituztegu. Bulegoan informazioa jaso dezakezue.

Urtero gabonetan otar bat zozketatzen dugu bazkide guztien artean. Aurten, Xabier Bardajiri egokitu zaio. Zorionak!

## 3X3



Giro zoragarria gabonetako **VII. 3x3 Sakibaloiko Txapelketan**. Ea aurten, berriz ere, kantxan ikusteko aukera daukagun.



# LASARTE-ORIA BAI! KROS HERRIKOIA



Orain arte gure krosa korrika edo patinetan egin zitekeen, orain berriz, bastoiekin ere egin daiteke. Izan ere, azken edizioan I.Ipar Martxa antolatu dugu. Eta nola ez, helduen ostean, gure herriko txikien txanda izan zen, benetako protagonisten txanda. Beste behin, kroseko goiza kolorez eta alaitasunez margotu zuten.
Aurten, urte borobila izan behar zuena, XXV.edizioa, ez dakigu laukia edo hirukia izaten bukatuko duen. Ilusio bereziarekin ekin genion aurtengo edizio antolatzeari, baina covitak zapuztu digu, ez baitakigu ospatu ahal izango dugun edo ez.
Krosa kirol proba baino haratago doa. Kontziente gara herriko ekonomian duen eraginaz, horregatik, krosa modu batera edo bestera ospatu ahal izatea espero dugu.








# SASKIBALOIKO SELEKZIOEN TOKAPETA



Azken urtetan herrian saskibaloia sustatzeko ekimen desberdinak burutzen ari gara. Hauetako bat, Saskibaloiko Selekzioen Topaketa da. Oso harrera ona duen ekimena da. Bost urtez jarraian antolatu dugu Maialen Chourraut kiroldegian abenduko zubian. Azken honetan, infantil nesken selekzioak jokatzen ikusteko aukera izan genuen: Galizia, Asturias, Gaztela-Leon eta Euskadi. Topaketa hau Espainiako iparraldeko selekzioentzako prestaketa moduko bat da urtarrilean jokatzen den Espainiako Txapelketarako. Aurten ere antolatzea espero dugu.

Arin express
ARIN SAN SEBASTIAN
Tlf: +34 943 360945 • Fax: +34 943 370921
info@arinexpress.com • www.arinexpress.com

Bronx

Buenetxea
CAFE BAR

ALDATZ EKUA TABERNA
Blas de Lezo 2
LASARTE-ORIA
WI-FI

GAROA

GENERALI
Juan Ignacio Agirre
Agente Exclusivo
Núm. Registro C007215978562W
Pablo Mutiozabal Nº 1
( Acceso Por Hipódromo 2 )
20160 Lasarte- Oria
T +34 943 543 164
M +34 688 695 986

Taberna - Jatetxea
Avenida

FERNANDEZ
Ehunak
Kane Nagusia, 2
LASARTE-ORIA Tel. 943 361 607

ETXEZARRETA
HARATEGIA-URDAITEGIA
Hipodromo Etorbidea - Lasarte-Oria - Tel.: 943 361 379

taberna Arkupe

bardaji
Administración de fincas e Inmobiliaria
Finka administrazioa eta Etxesalmenta

ASADOR Riojanos
Urdin Kalea, 13
Telf. 943 362 720
Móvil 689 680 390
20160 LASARTE - ORIA
(Gipuzkoa)

NORTHTEAM
NUTRIZIOA
TU TIENDA DE SUPLEMENTOS DE

- TABERNA -
ILARGI

VIÑA DEL MAR
CAFETERIA-KAFETEGIA
Ola kalea, 2 bajo
20160 Lasarte-Oria
Tel. 943 362 768

FRUTAS RUIZ
Geltoki, 16 - LASARTE-ORIA - Tel.: 943 36 13 04

M.BERASATEGI
KAFE & TEA

BAR
INSAUSTI
Geltoki Kalea, 6 - 943 36 11 51
20160 LASARTE - ORIA

Patxi Larrañaga
HARATEGIA
Kale Nagusia, 39 LASARTE-ORIA

COPILASARTE
FOTOCOPIAS B/N Y COLOR DIGITAL
Encuadernaciones - Plastificados
Material Informático y de Oficina
Estampación Textil
Imprenta rápida
PLOTEADO, ESCANEADO Y COPIAS DE PLANOS B/N Y COLOR
Kale Nagusia, 34 - bajo 1 - 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 366 930 • Fax: 943 366 931
copilasarte@euskalnet.net

LUIS CAR
autobusak

MUEBLES ZUBI
Geltoki Kalea, 21 • Tel.: 943 36 24 67 • Fax: 943 37 27 94
20160 LASARTE - ORIA (Gipuzkoa)
E-mail: mueblesszubi@hotmail.com

BAR GENESIS
DESAYUNOS • PINCHOS • BOCATAS
Zumaburu, 11 LASARTE-ORIA
Tel: 661 575 565

GES SEGUROS
Pablo Mutiozabal kalea 2, 1goa
Lasarte-Oria
Tel: 943 365 899

I. Urruzola
aroztegia
www.iurruzola-aroztegia.com
urruzolaaroztegia@gmail.com
943 371 200 / 615 784 238
Oria etorbidea 4, behea. 20.160 Lasarte-Oria

TABERNA

kima
MASAJE TERAPEUTICO Y DEPORTIVO
MASAJE LEKUA
GOYO MARTIN
XABIER CARBAYEDA
C/. Nagusia, 44 - bajo
Tel.: 943 36 61 97
20160 LASARTE

YOLANDA
Bar Restaurante

SAN MIGUEL OKINDEGIA
Tel. 943 36 10 95
OLA KALEA, 4
LASARTE-ORIA

Tiburtzio
Artizar

bertako
igogailuak | ascensores
Tel.: 943 903 450 / 691 647 965
www.bertako.eus

Taberna KEBAB
reparto gratuito a domicilio Tel.: 943 36 95 33

FACTORY VANRENT.eus
SAN SEBASTIÁN
autokarabana alokairua
factoryvanrent@gmail.com
943504480

Incoman S.L.
ELEKTRIZITATEA
MANTENTZE-EKIPOAK
Tel.: 943 37 31 98 info@incoman.es

IÑAKI TABERNA
PINTXO HOTZ ETA BEROAK - BOKATAK
Iñigo de Loiola, 4 - LASARTE-ORIA - Tel.: 943 365 501

jalgi
Kafe antzokia

leize
LZE
www.leizemoda.com

TRUMOI
MUSIK & GARAGAR

Lukainkategi
ERRETEGIA
Aingeru Zaindaria
AÑORGA auzoa - DONOSTIA
943 37 14 44

NOAOA
BIDAIAK
943 373 613 - www.noaoa.eus

Noelia Calero
OSTEOPATIA - FISIOTERAPIA

Okela
CARNICERIA • HARATEGIA
Karmelo Etxegarai, 10 - DONOSTIA - Tel.: 943 31 40 43
Nagusia 41 - LASARTE - ORIA - Tel.: 943 36 39 12
Nafarroa kalea 3 - LEGAZPIA - Tel.: 943 73 18 25

ORMAZABAL
OPARI GAIAK
LORADENDA

Patricio

VENTANAS SAN MIGUEL

Hotel txartel

TXOKO
Paellas y asados por encargo
Basaundi, 13 - LASARTE-ORIA

ANETO
100% NATURAL

XUHAKAN
TXAKUR ELKARTEA
Tlf: 600338804
xuhakantxakurelkartea@gmail.com

bikain
diseinu grafikoa
www.bikain.info

www.ostadarskt.eus ostadarskt ostadarskt

OSTADAR S.K.T.

**OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEAK**
eskerrak eman nahi dizkie, TXINTXARRI aldizkariari, TXEMA VALLESi eta baita gure babesle guztiei ere, denboraldi honetan eskainitako laguntzarengatik.

Lasarte-Orian Guk Kirola euskaraz